

Euskal AEko BPGk %-4,0ko murrizketa izan zuen 2009ko hirugarren hiruhilekoan


Aurreko hiruhilekoaren aldean %-0,1ekoa izan da murrizketa, urteko lehen hiruhilekoan baino bederatzi hamarren gutxiago

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko ekonomiak sortutako BPGk %-4,0ko murrizketa izan du 2009ko hirugarren hiruhilekoan, 2008ko aldi beraren aldean; aurreko hiruhilekoan baino hazkundeko lau hamarren gutxiago.

Hona hemen urte arteko beste tasa batzuk: Espainian %-4,0; Euro-16 eremuan %-4,1; 27-EBn %-4,3; AEBn %-2,3.

Laugarren hiruhilekoz jarraian, aurreko hiruhilekoaren aldean, negatiboa izan da bilakaera %-0,1ekoa, aurreko hiruhilekoan baino bederatzi hamarren gutxiago negatiboa.


2. Grafikoa BPG m/p. Hazkunde-tasak (%). Euskal AE



Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak. Eustat

Hiruhileko arteko aldakuntza hori %-0,3 izan da Espainiako ekonomian, %0,2 27-EBn, %0,4 Euro eremuan eta %0,9 AEBn, kasu guztietan datuok hobeak dira aurreko hiruhilekoaren aldean.

2. grafikoa. BPG m/p. Urte arteko hazkunde-tasak. (%)



Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak.

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak, Eustat. Estatuko datuak: INE EB-27ko, Euro-16 eremuko eta Estatu Batuetako datuak: EUROSTAT

Sektore eskaintzaileen artean, industriak (%-11,3) eta eraikuntzak (%-4,9) izan dituzte murrizketarik handienak. Zerbitzuak, bigarrenaz, urte arteko hazkunde negatiboa (%-0,6) izan dute. Lehen sektorea da hazkunde-tasa positiboak (%3,5) izan dituen bakarra.

Industrian, laugarren hiruhilekoz jarraian, urte arteko eta hiruhileko arteko tasak negatiboak dira, baina hiruhilekoen artekoa (%-0,2) bi puntu eta bost hamarrenez hobea da aurreko hiruhilekoan (%-2,7) baino.

1. koadroa. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE

	2007	2008	2008			2009		
			II	III	IV	I	II	III
Nekazaritza eta arrantza	0,0	0,5	-1,2	-3,8	5,7	17,2	9,9	3,5
Industria	3,1	-0,5	0,4	0,0	-3,2	-8,6	-10,0	-11,3
Eraikuntza	11,3	-1,1	-0,4	-1,4	-3,4	-4,8	-5,2	-4,9
Zerbitzuak	4,1	3,5	3,6	3,6	2,8	0,5	-0,5	-0,6
Produktuen gaineko zerga garbiak	2,8	1,8	3,2	0,9	-1,4	-3,6	-4,0	-3,8
BPGda merkatuko preziotan	4,2	1,9	2,3	1,9	0,3	-2,5	-3,6	-4,0

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak. Eustat

Eraikuntzan sei hiruhilekotan negatiboak izan dira urte arteko eta hiruhilekoen arteko tasak; sektore honetan erorketa iraunkorragoa da industrian baino. Industrian ez bezala, hiruhilekoen arteko tasa (%-1,0) lau hamarrenez negatiboagoa da aurreko hiruhilekoan baino.

Zerbitzuetan urte arteko %-0,6ko jaitsiera dago, bi osagaien jokaera bata bestea ez bezalakoa izan delarik. **Merkatuko Zerbitzuen** bilakaera negatiboa da urte artekoan (%-1,8), eta positiboa hiruhileko artean (%+0,1); **Ez-merkatuko zerbitzuek** hazkundeari eusten diote, urte arteko tasa %5,2 delarik; hauen jokaerak berebiziko garrantzia du zerbitzuen sektoreen jardura-mailan.

Lehen sektorean urte artekoa positiboa da (%3,5); hiruhilekoen artekoa berriz da negatiboa (%-5,2).

Eskariaren aldetik Barne eskariaren murrizketa (%-4,3) hiru hamarrenez negatiboagoa da BPGren murrizketa baino. Haren osagai nagusien –Kontsumo Pribatuaren eta Kapital Eraketa Gordinaren- bilakaera negatiboak funtsezkoak dira egoera azaltzekotan. Barne-eskariaren murrizketa BPGrena baino handiagoa delarik, kanpoko saldoaren ekarpen garbia positiboa da, bai esportazioen, bai inportazioen bilakaerak negatiboak badira ere.

Osagaien arabera aztertuz gero, **Familia-etxeen azken kontsumoak (Kontsumo Pribatua)** bilakaera negatiboa du laugarren hiruhilekoz jarraian, bai urte artean (%-4,3), bai hiru hileko artean (%-0,7).

Herri Administrazioen Azken Kontsumoko Gastuak (Kontsumo Publikoa) ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu publikoaren babesean, %3,0ko hazkundera izan du, aurreko hiruhilekoetako hazkundeari jarraituz.

2. koadroa. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko hazkunde-tasak. Euskal AE

	2007	2008	2008			2009		
			II	III	IV	I	II	III
Etzeguneen azken kontosumoko gastua	3,6	1,6	3,1	1,0	-1,4	-3,7	-4,6	-4,3
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	6,4	4,8	4,4	5,3	4,1	4,5	3,7	3,0
Kapital-eraketa gordina	4,6	0,5	1,9	0,0	-2,5	-6,8	-9,1	-8,3
Barne-eskaria	4,3	1,8	2,9	1,3	-0,9	-3,3	-4,6	-4,3
Guztizko esportazioak	5,4	4,1	7,8	5,5	-2,2	-11,8	-16,4	-15,8
Guztizko inportazioak	5,4	3,8	8,4	4,4	-3,9	-12,3	-17,0	-15,5
BPGda merkatuko preziotan	4,2	1,9	2,3	1,9	0,3	-2,5	-3,6	-4,0

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak. Eustat

Kapital Eraketa Gordinak (Inbertsioa) izan du Barne Eskariaren alderdirik negatiboena, urte arteko jaitsiera %-8,3 izan delarik; arrazoiak eraikuntzaren bultzadaren eta ekipo-ondasunetan egindako inbertsioaren moteltzea izan dira. Hiruhilekoen arteko bilakaera ere negatiboa da (%-0,1).

Esportazioak guztira %-15,8 jaitsi dira eta **inportazioak** %-15,5; kanpo-saldoaren ekarpen garbia, BPGra, positiboa da.

Langile okupatuen kopuruak behera egin du (%-3,8) 2008ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, eta %-0,6 aurreko hiruhilekoaren aldean. Aurreko hiruhilekoko batez bestekoaz 6 mila enplegu inguru galdu dira eta aurreko urteko hiruhileko berberaz 39 mila inguru. Hiruhileko honetako enplegu-galera aurrekoaren aldean batez ere Industrian gertatu da eta neurri apalago batean Zerbitzuetan.

BPGk lurralde historikoetan duen bilakaerari dagokionez, 2009ko hirugarren hiruhilekoan urte arteko jaitsierarik handiena Araban (%-4,6) izan da; Gipuzkoan eta Bizkaian %-3,9.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: José Javier Aramburu

+Tlf:+34-945-01 75 80 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp